

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

1981eko estatu kolpearen klaxeetatik harago

Anatomía de un instante (Une baten anatomia). Javier Cercas. Random House Mondadori, 2009. 462 orrialde.

ASTEARTEAN, albisteen orduan, Hegoaldeko telebista gehienek irudi bera ekarriko zuten pantailara: Tejero teniente koronela Espainiako kongresuan oihuka; tiroak; Manuel Gutiérrez Mellado presidenteordea militarrei aurre egiten; eta Adolfo Suárez, presidentea, bere eserlekuan geldi. Segundo gutxi batzuk jarriko zituzten ziurrenik, eta gero aipatuko zuten 29 urte joan direla, 1981eko otsailaren 23an militar batzuk Espainian estatu-kolpea jotzen saiatu zirenetik. Agian Valentziako irudi batzuk ere jarriko zizkizuten, kaleetan tankeak, Milans del Bosch delako bat aipatu... Baina gero Juan Carlos I.aren irudi heroikoa, ia mitikoa –zentzu helenikoan, ez orain jendeak erabiltzen duen bezala– ateratzen, eta demokrazia irabazle. THE END.



Klixea da honezkero Espainiako eta Euskal Erdi honetako hedabideetan. Eta klixe horretatik abiatu da Javier Cercas *Anatomía de un instante* izkiriatzeko. *Tejeras*aren historiak ematen baitu nobela baterako; are gehiago, hainbeste urteren ondoren, errealtatea eta fikzioa pixkanaka nahasten ari direla ikusita. Urtero telebistak jokaldiaren errepikapena eskaintzen digu, baina inor gutxi ausartuko da kontrako angelua eskaintzera. Inork gutxik emanango du estatu-kolpearen testuingurua. Inork ez dizkizu deskribatuko, militarrek kongresuan sartu aurreko hilabeteetan, Madrilgo botere-zirkuluetan egosi ziren konspirazioak, alderdi guztiak eta Erregea sukaldari.

Ba, lokatz horietan sartu da Cercas liburu honetan. Nobelaren teknikak erabilia osatutako saiakera, ala saiakera baten gisa idatzitako nobela, ez dio asko axola. Idazle espainiarrak lortzen du liburu osoan tentsio narratiboa mantentzea, *flash-back* luzeak erabiltzen ditu garaiko politikari bakoitzaren bizitzan bilatzeko; eta etengabe itzultzen da une batera, otsailaren 23ko kolpera, pertsonaia bakoitzaren jarreraren zergatia ulertzeko asmoz. Hiru pertsona ditu detaile handiz erretratatzeko: Adolfo Suárez, Santiago Carrillo eta Manuel Gutiérrez Mellado. Hirurak ere, Hans Magnus Enzensbergerren hitzak erabiliz, “erretretako heroiak” dira Cercasentzat, beren burua –idealak, proiektu pertsonal eta kolektiboak– zulatuz guztien interesen alde egiten duten pertsonaia grisak.

Eta, gustura irakurri dudan arren, hor egin dit karranka liburuak: kontuak kontu, eta azalpenak azalpen, hirurak, bakoitza bere modura, oportunistak hutsak iruditu izan baitzaizkit beti. Cercasek kontsentsuzko tesia aukeratu du, material berarekin gehiago bustitzeko aukera izan arren. Lastima. ■

Ugarte
Nekazalturismoa

Bebailara.

20159 ASTEASU

Tel.: 943 69 27 22

657 72 53 21

e-posta: legarrayolan@yahoo.es

www.nekatur.net/ugarte

